

## Pasaiako kanpo-portua

# **Arduratuta eta kezkatuak, hauex aldarrikatzen dugu: gehiago hausnartu eta eztabaidatu behar da proiektua, Gipuzkoako herritarren geroa baldintzatu baitezake**

Premiazkoa eta presazkoa da Pasaiako badia eta haren inguru osoa biziberritzea, eskualde osoa baitago horren premian.

Azpiegitura publikoa den aldetik, behar-beharrezkoa da, halaber, Pasaiako portua berri eta modernizatzea, lurralde-estrategia baten barruan. Lurralde-estrategia horrek, alabaina, apustu sendoa egin behar du Euskal Herriaren gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-garapena iraunkorra izan dadin.

Gure ustez, eskualde horretako eta Gipuzkoako herritar guztiak ados egon daitezke bi premisa edo baldintza horiekin. Horrenbestez, beharrezkoa iruditzen zaigu aukera edo aukera egoki baten aldeko adostasun politikoa eta soziala biltzea, bateragarriak izan daitezen, batetik, Pasaiako badiaren hiri-antolamendua biziberritzeko asmoak, eta, bestetik, Pasaiako portua berri eta modernizatzeko proiektuak.

Kezka horiek agerian uzten dute, gure ustez, erakunde batzuek ez dutela gaia behar bezala landu, eta ez direla sakon aztertu aukera eta aukera guztiak. Eta azterketa hori egitea behar-beharrezkoa da kasu honetan.

Ez dugu asmorik epaitu nahi. Ezta borondaterik ere. Sigla politikoen gainetik egin nahi dugu hausnarketa hori, alderdi politikoen arteko konfrontazioetatik aparte. Asmo garbi eta xumea dugu: ideiak eztabaidatu eta kontrastatu nahi ditugu, gai hau garrantzi handikoa baita Gipuzkoarentzat eta gipuzkoarentzat. Ez da ona gai tabuak izatea, eztabaida demokratikorik gabe eta herritarren parte-hartzerik gabe erabakitzen direnak. Ildo horretatik, Pasaian, Jaizkibelgo labarretan, kanpo-portu bat eraikitze proposamena egitea eta, hori gutxi balitz, aukera bakar gisa planteatzea, nahikoa gai delikatu eta konprometitua dela iruditzen zaigu; beraz, jendaurrean behar bezala eztabaidatua eta aztertua izan behar duela uste dugu.

Hori horrela izanda, eta Gipuzkoaren geroaz kezkatutako pertsonak garen aldetik, proiektu horren gainean ditugun kezkak eta zalantzak helarazi nahi dizkiogu iritzi publikoari. Hauek dira, zehazki, arduratzen gaituzten alderdiak:

- 1.- Hainbat ikerketek kontrakoa adierazi duten arren, ez dago kanpo portua egin beharrik Pasaiako Badia biziberritzeko, aukera ugari baitaude biziberritze-lan hori egiteko.
- 2.- Erakunde eta pertsona inplikatuak eskainitako datuen eta kopuruen inguruan dauden desadostasunek (bai sortu beharreko jarduera ekonomiko eta enpleguaren inguruan, bai kostuen inguruan) zalantza handiak sortzen dituzte.

3.- Proposamen hori mantentzea ez da oso normala, inbertsio publiko erraldoiak birplanteatzen ari diren une honetan, azken urteotan egindako gehiegizko gastua nabarmen gelditu delarik. Azpiegiturak bikoiztu eta hirukoiztu dira, baina arazoak daude haiek amortizatzeko, beraien errentagarritasun eskasarengatik.

4.- Ez zaie erantzunik eman proiektuaren ingurumen inpaktu ezezkorra eta itzulezina salatzen zuten hainbat txosten kualifikaturi (Ingurumen Ministeriokoa barne).

5.- Pasaiaiko kanpo-portuaren proiektua Foru Aldundiko hiritar partaidetzarako planetan sartzeko eskaerak era sistematiko batean ukatzeak ziurgabetasuna eta atsekabea sortzen du.

Hori dela-eta,

Gertakari horiek guztiek garrantzi eta munta handia dutela iruditzen zaigu, eta, zinez uste dugunez erabaki publikoak ondo aztertuta eta erabateko gardentasunez hartu behar direla, **puntu hauek planteatzen dizkiegu agintari publikoei, eta, oro har, iritzi publikoari:**

- Datu eta zifra fidagarriak aurkeztu behar dira Pasaiaiko kanpo-portuari buruz, eta ez etengabe aldatzen diren magnitudeak.

- Ez da frogatutzat eman behar erakundeen ustez iritzia baino ez dena, alegia, ezin da frogatutzat eman Pasaiaiko badia txukundu eta biziberritzeko ezinbestekoa denik Jaizkibelen beste aldean dartsena bat egitea.

- Proiektuak eragin dezakeen suntsipenaren kostu ekonomikoak eta ingurumen-eraginak baloratu behar dira, eta argi eta garbi frogatu behar da, zalantzarik gabe, hura dela bide edo aukera bakarra.

- Hausnartu behar da ea egokia den milioi ugariko inbertsio bat egitea oraindik hasi gabe dagoen proiektu batean, kontuan izanda gastu publikoa murrizten ari dela European, gizarte-premia ugariaren kaltetan.

- Komeni da proiektuan dirutza bat alferrik xahutuko litzatekeela uste duten pertsonen iritzia ere entzutea. Pertsona horiek uste dute ez dela premiazkoa kanpo-portu bat egitea, eta ez litzatekeela azpiegitura efizientea izango, Euskadiko, gure herri txikiko, azpiegiturak bikoiztuko bailirateke.

- Iritzi eta ikuspuntu guztiak baloratzea komeni da, eta alde batera utzi behar dira aurreiritziak, maximalismoak eta ikuspegi "utziezinak", errealitateak ageriko eztabaida dagoela ageri baitu.

- Azken finean, beharrezkoa da eztabaida piztea, gaiak ondo aztertzea eta iritzia trukatzeko. Ildo horretatik, herritarren parte hartzea bultzatzeko planek kanpo-portuaren gaia landu behar dute Gipuzkoan.

Gure ustez, behar-beharrezkoa da sakon eta zorrotasunez aztertu eta eztabaidatzea aukeran dauden aukera guztiak. Berariaz, alderdi hauek kontuan hartu behar lituzke aukera horietako batek:

1. Euskal Portu Sistema bat eratzea, eta, horren baitan, Bilboko eta Pasaiako portuek, eta, beharrezkoa bada, sistema horretako gainerako portuek izango luketen eginkizuna zehaztea.
2. Pasaiako portuak, kanpo-dartsenarik egin gabe, Euskal Portu Sistemari izango lukeen lekua erabaki edo zehaztea. Hau da, Pasaiako portua berriro eta modernizatzea, eta, era berean, haren ingurunea biziberritzea, iraunkortasuneko irizpideak aintzat hartuta eta ingurumena zainduz.

Euskadiko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak aldatzeko prozedurari ekitea erabaki berri du Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak, eta, gure ustez, aukera bikaina da hori, bakarria ez izan arren, gaia herrialde osoaren ikuspegitik planteatzeko, liskar eta interes partikularrak alde batera utzita.

Pasaiako badia biziberritzeko asmoa Gipuzkoako herritar eta erakunde guztien helburu izatea nahi genuke, ilusioa sortu eta gipuzkoarren nahiz erakundeen ahaleginak piztu eta batu dituzan. Beharrezkoa zaigu horrela jokatzeko, geroko belaunaldiek inguru zoragarri hori goza dezaten, egungo egoerak dakartzan eragozpen eta zailtasunak pairatu gabe.

Horiek horrela, ilusioa eragingo duen proiektu adostu hori mamitzeko, dei egiten diegu Gipuzkoako erakundeei zuhertasunez jokatu eta hausnarketa egin dezaten. Alde batera utzi behar dira jarrera maximalistak, behar bezala oinarritu gabeak, eta erdibideko aukerak aztertzeko eta eztabaidatzeko aukera eman behar da, badia biziberritzeko helburua bete dadin, kanpo-dartsenak sortuko lituzkeen arazo larriak baztertuz.

2011ko apirila